

## ARESTI ZENAREN "MUNDU MUNDUAN" ETA LAN ARGITARAGABEAK

J. S. M.

Igazko *Egan*-en 5-6 zenbakian eman genion hasera Gabriel Aresti zenaren zenbait lan argitaragabe publikatzeari. Orditik zenbaki guztietan eman dugu zerbait, bai hizlaxoz eta bai hiz-neurtuz, eta oraingo honetan dator orainarte aurkitu ditugunen amaiera.

Azken lau urteotan, «Antolojia laburra» argitaratu genuenetik (ikus *Egan*, 1982ko alea, 13-49 orrialdeak eta ohar eraskina 50-57.etan), G. Arestiren zenbait sorketa lan, itzulpen eta ohar eman ditugu aldizkari honetan gure poeta zenaren aberastasuna agerrerazteko ez ezik berrikuspegi baterako lagungarri direnak. Eta uste dugu denbora heldu dela bere lan bilduen irakurketa, gehiengoan berrirakurketa baldin bada ere, orokorki eta urrutiagotik harturik berrikustapenak agertzeko.

*Egan*-en argitara genuen «Antolojia laburra» behar beharrezkoa zaio bere lanak aztertu nahi dituenari, eta horren ondotik emandako lan argitaragabeak ere aintzat hartzeoak dira.

Bestalde, itzulpen kontuan, lehenago herbestean lau eta bost hizkuntzetan argitaratu ziren liburu haietatik gure artean zabalkunderik gabe gelditu zirenak, poeta itzultzailea hil zen garaian argitaratuak zirenez, F. García Lorca-ren *Sei poema galego* eta V. Paz-Andrade-ren *Uma-oncitic negarra*, *Egan*-en bildu genituen 1983 eta 1985.ean. Baina, behar duenak, poesia itzulpenen agiri zehatzak Euskaltzaindiaren *Euskera* ager-

karian eman nituen (ikus, *Euskera*, XXX, 1985. urtekoan 535-589 orrialdeak).

Beraz, gure poetari buruz lan egin nahi duenak horiek hainzatzat hartu beharko ditu.

Aipatuak aipatu, orain beste zerbait ere gaineratzea iduritu zaigu, «Mundu munduan» lanari egileak erantsi zion «Oharra».

Zentsuragatik edo nik ez dakit zergatik, inoiz argitaragabea. Eta Arestiren lanak aztertzen ari den Aurelia Arkotxarekin bat nator «Oharra» behar beharrezkotzat jotzean «Mundu munduan»-en muina ezagutzerik nahi bada. Aurkezten diren pertsonaien baliozko ordezkioak zeintzuk ziren historian eta Testamentu Zaharreko pasarte eta mitoetatik jokalarietara, lehena eta oraina barne, ulertzeko bide bakarra deritzagu. Hor dago gaien gakoa edo giltzia, nor nori ari den jakitzean. Egilearen intentzioa erakusten bai dugu, eta berak sortu zuen mundua ideki.

«Mundu munduan» *Egan*-en argitaratu zen lehen aldiz, duela hogetabat urte (1965ean) eta hogeituro berargitaratu (1985) Erein argitaletxeak Karmelo Landaren hitzaurrez. Lastima liburuari berari ez ezartzea «Oharra». Zeren, obraren meua, mezurik baldin bada, «Oharra» delako honetan datza.

Orainarte non egon den? Hara hemen argibidea: egileak, bizi zela, kopia osoa igorri zidan —hobeto esan, lan hori Agorra sarira aurkeztu ondorean— eta heriotza ondotik, beragandik jasotako paperak, ahal nituenak edo gorde nituenak, bildu eta Euskaltzaindiko agiritegira eman nituen han edonork aztertzeko aukeran jarriko ziren ustean. 1982. urtean izan zen, paperetatik «Antologia laburra»ri kopia bat egin eta hau oharrez *Egan*-era eman nuenean.

Orain, ongi deritzagu «Oharra» delako hau lan argitaragabeekin batera agertzea, eta hara hor hitzez-hitz, zegoen bezala.

## OHARRA:

Irakurleak eztezan atentziorik gal, orain banan-bana aipatuko ditugu nobela honetan mintzatzen diren *solastariak*:

### *Joko Arriskutsuak kapituluak:*

Bost haurrak:

*Miramamolin*, *Kordobako kalifa* (Petri Motz).  
*Fatima* (Joana Mendia), eta  
*Zoraida* (Teresa Urresti), haren emazteak.  
*Antxo Nagusia Nafarroako erregea* (Josepe Zufia)  
*Iruineko berreroa* (Eztebe Mendia).

Pederasta erren bat.

### *Zerutik Sua eroriko da kapituluak:*

Josepe Zufia, taferna bateko jabearen semea.  
Teresa Urresti, haren maitalea eta tafernako neska.  
Hernando Zenarro, tafernako morroia.

### *Famili-biltzarra kapituluak:*

Josepe Zufia.  
Eztebe Mendia apaiza, haren kuinatua.  
Andere Zufia, Joseperen aita eta tafernako jabea.  
Katalin, haren emaztea eta Joseperen ama.  
Neskame bat.

### *Holofernesik gabeko Judit kapituluak:*

Hernando Zenarro.  
Tereza Urresti.  
Bazkoare Arrona, etxola bateko jabea.  
Eneko, haren semea.  
Haur jaio berria.  
Arratoia.

### *Nebarrebarrean kapituluak:*

Eztebe Mendia.  
Joana Mendia, haren arreba eta Joseperen emaztea.

### *Bihurrerarik ez duen ordua kapituluak:*

Hernando Zenarro.  
Tereza Urresti.  
Josepe Zufia.  
Bazkoare Arrona.  
Eneko Arrona.  
Ruiztegi polizia.  
Donostiako soldado bat.

### *Kontuak guztiok pagatu behar ditugu kapituluak:*

Josepe Zufia.  
Eztebe Mendia.  
Paulo Amantegi pederasta kondenatua.  
Petri Motzen espiritua.